

auzoz auzo • AUZOZ AUZO • AUZOZ AUZO

bidebieta

«Kontame» gazte aldizkaria

Kontadores gazte-lekuak «Kontame» aldizkaria kaleratu berri du. Gazteentzako gaiak jorratzen dituzte 12 bat lagunek.

Hilero 500 ale kalera-tzeko asmoa dute, bakoitza 100 pezetaren truke.

«Kontame»n gai ugari topa ditzakegu: elkarrizketak, moda, zinema, komikiak... Guztia Kontadoreseko Pilik koordinatuta eta aldizkariak dituen 28 orritan banatuta. Aldizkariaren barrualdea txuri beltzean da baina azala koloretan inprimatzen da eta artikulu bakoitza gutxienez argazki batekin argitaratzen da.

Lehen alean ez bezala, egileek bigarren alerako euskarazko artikuluak ere izango direla iragarri dute.

Aldizkari honen bigarren alea eskuratu nahi baduzu dei 39 01 22 telefonora edo zatoz Kontadores gazte topagunera.



«Kontame» aldizkariaren egileak Kontadoreseko topa-lekuan. Aldizkaria gauzatzen duten lekuan hain zuzen.

Argazkia: Inmacul Olegi

altza

Harrobiko kamioiak oztopo

Iau Haizeta parkea izango den inguruetara eta bertako harrobira joaten diren kamioiek ez dute oraindik auzokideen baimenik lortu Altzako erdigunetik pasatzeko. Duela aste batzuk, «Gure ame-

tsa», 120 pertsonen osatutako bizilagun taldea, Udaletxean izan zen arazo honen aurrean irtenbide eske.

Udalak hartutako erabakiak baimen berezia ematen die nekazal pro-

duktuekin ibili behar duten kamioei baina bizilagunak kezu agertu dira erabaki honen aurrean errepidea oso kaltetua dagoelako.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

PARMA hotela
 Itsas aurrean.
 Bainua, kalefazioa, telebista eta telefonoa gela guztietan
 SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA.: 42 80 19

Casa de Tabor
 1930ean sortua
 Jostura eta tapizeriak
 Artile eta hari-kontuetan etxerik hoiberenak
 Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia

INTXAUSTI DIETETIKA

 jaki osasuntsu eta naturalak
 Jose Elozegi 120 • Tfnoa.: 39 89 84

Z CALZADOS ZABALO

 Oinetakoak poltsak eta osagaiak
 Larratxo 16 • Tfnoa.: 39 14 15